

**DURANGOKO PLATERUAK**

**Antonio de la Fuente Bolanjero 1757-12-12 & 1834-07-04**  
**Juan Cruz de la Fuente Bolanjero 1760-11-25 & 1831-02-015**

Zer da memoria, zer da tradizioa, zer da historia, zer da betikoa? *Gernikako arbolaren* egilea nor zen badakigu. Nor ote zen *Agur Zuberoarena*, *Ogi zeruotikena*, *Agur Jaunak*, *Bogabogarena*, *Agur Jesusen Ama*, *Egun da Santi Mamiñarena*? XVIII mendean footballean jokatzeko al zen? Gure gurea dugun Dantzari-dantza tradizioz betikoena zainduz, gure dantzariak beti, denbora sortu aurreko denboretatik, txapel gorritz, praka zuriz, abarketa zuriz plazaratu eta zaizkigu? Beti, betidanik? Gabonetan afalorduan senitartean edo plazan edo kontzerturen batean abestu ohi den *Hator*, *Hator mutil etxera* kantu eder, hunkigarri horrek egilerik ba ote du? Historiatik, betidanez, anonimotik izenik jartzera ausartuko al gara?

Usu paper arteko hautsetan gordean, ezkutuan eta lozorroan egon egonean egoten dira altxor preziatuak eta eskura nahi gennituzkeen zitak, izenak, tesiak, bertsoak, dantzak, kantuak ...

Halandaze Azkue handiak Otxandion bildu zuen berak argitaratutako Cancionero Vascon *Ator*, *ator mutill*... eta bere garaikide genuen Jesus Guridik koruetan abesteko harmonizatu zuena eta Gasteizko euskal seminaristei esker euskal herrietan barreiatu zena,... "Colección de Cantos Vizcainos, incluso los de los Plateros y del Duranguésado arreglados para canto y piano por B. de Ercilla, Dotésio, editor de música, -volumen 1º, nº 3 Gaboneco kantac, (Canciones de Navidad

por los célebres Plateros de Durango), Don Resu Azkueren erudizioak honen berri bazuela eta nago. Baina 1948an Felipe de Astola y Sertuchak ziderginon **Gaboneco cantac** publikatuko du. Gerora Nikolas Alzola Gerediagak 1963an *EGAN* aldizkariko 4-6 aleetan gaia jorratzen du Astolaren bidetik atea gehitxoago irekiz eta Aita Santi Onaindia karmeldarrak bere *Euskal Literatura II* alean gure literaturaren historiako partaide aipatzen dizkigu Durangon ziderra lantzen duten, -(plata=platero, hojalata=hojalatero, taberna=taberbero...)- ziderra lantzen duten Plateruak.

Nortzuk dira Plateruak, Durangoko Plateruak? Gure, nire lehen albistea *Noticias Históricas de la Villa de Durango, F.A. Veitiak eta R. Etxezarretak* egindako bilduma eta Gerediaga Elkarteak 1967an argitaratu zuen liburuan izan zen. 1828.ngo ekainaren 14ean Espainiako Errege ziren Fernando VIIa eta bere emaztea Maria Josefa Amalia de Sajonia Durangora sartu ziren Kurutziaगतik goizeko hamaika t'erdia inguruan. Gerediaga muinoan agertu zirenetik kanpai hotsak eta txapli-goak ugari ziren Durangoko urian harrera on bat egin guran. Egun bi igaro zituzten Pinondon horretarako egoitza apropos atondutako Gabina Egiaren jauregian. Errege jaun-andereok eta euron etorrera zelata gastu berezirik ez egiteko agindu zuten arren, etxe aurre guztiak zuritu ziren, itxuragatik bada ere. Hiru egunotan Durangoko tanbolitteruak alaitasuna herrian zehar erein guran ibili ei ziren, baita ere Pro-bintziatik, Gipuzkoatik ekarritako dultzaineru talde bat.

Mezak, Tedeumak, bezperak eta beste enparauak, horrelako egunotan izaten diren lez konplitu ondoren, ekainaren 15ean arratsaldez eta Pinondoko landan Dantza-luzea edo Erregelak egin ziren hirurogeita hamar urte inguruko anaia bi zirelarik bata Aurreskulari eta bestea Atzeskularia. Oso ezagunak ziren Durangoko Plateruak izengoitiz, euron izenez baino sonatua-goak. Antonio gihartsua eta gorputz lirain lerdenekoa omen zen, lodikotea eta ganzduna aldiz Juan Kruz. Adin bortakoe-tan espero den baino arintasun bandiagoz dantzatu ei zuten,

*batez ere Erregelak egin ondoren Porrue dantzatzerakoan Juan Kruz gizenaren bizitasunez barriturik Madrilgo gortetik bonagino barrerik egin ez zuen erregina barre algaraka hasi ei zen, gure zidergin honen dantzarako grazia txalotuz. Ondoren uriko udalbatzakoek osotu zuten beste soka bat Manuel Fermin Vidaurre alkatea Aurrekulari zela .....*

Andrés de la Fuente Marcos, Burgoskoa, eta Francisca Bolanjero Elorriaga, Gasteizkoa, ezkontideak Durango urian bizi dira Antonio euren semearen bateoan (1757-12-12an) agertzen dan bezala<sup>1</sup>.

Antonio de la Fuente Bolanjero 1757.eko abenduaren 12an bataiatu zuten Durangoko Santa Ana elizan eta bere anaia Juan Cruz de la Fuente Bolanjero 1760ko azaroaren 25ean, aitaturiko eliza berean, bertako liburuetan ikusi dugun bezala<sup>2</sup>.

- 
- |                         |  |
|-------------------------|--|
| <sup>1</sup> Sacramento | BAUTISMOS-Registros originales   |
| Fecha:                  | 1757-12-12   |
| Nombre y Apellidos:     | Francisco Antonio, Fuente, Bolanjero   |
| Padre:                  | Andres, Fuente, Marcos   |
| Madre:                  | Francisca, Bolanjero, Elorriaga  |
| Diócesis                | Bilbao   |
| Territorio histórico:   | BIZKAIA  |
| Localidad:              | Durango-Durango  |
| Parroquia:              | 45050 Santa Ana  |
| Fondo:                  | 01.02.01.146 / Fondos Parroquiales / Archivos Parroquiales / Durango - Durango / Santa Ana |
| <br>                    |  |
| <sup>2</sup> Sacramento | BAUTISMOS-Registros originales   |
| Fecha:                  | 1760-11-25   |
| Nombre y Apellidos:     | Juan Cruz, Fuente, Bolanjero   |
| Padre:                  | Andres, Fuente, Marcos   |
| Madre:                  | Francisca, Bolanjero, Elorriaga  |
| Diócesis                | Bilbao   |
| Territorio histórico:   | BIZKAIA  |
| Localidad:              | Durango-Durango  |
| Parroquia:              | 45050 Santa Ana  |
| Fondo:                  | 01.02.01.146 / Fondos Parroquiales / Archivos Parroquiales / Durango - Durango / Santa Ana |

Euron ama-hizkuntza, eta gurasoena noski, gaztelera dugu baina XVIII.eko Durangon euskera ez ikasi bakarrik, koplbertsoetan ere zorroztu dira.

Anaia biok aitaren ofizioa ikasi eta lantzen dute euron eguneroko ogia jateko eta aurrezteko. Zilarginaren langintza zein zen? Gaurko joyeruekin aldarazterik baduela begitantzen zait. *Fielen txuzoak*, elizetako kopoi-kalizak, kapa-pluivialak, kandelabroak, ... han hemengo maiorazkoen seme alaben ezkonsarrietako gerriko-belarritako-mahaigaineko bitxiak ... eta eurok idatziriko kroniketarik jaso dugunez Durangon, Otxandion, Diman, Mañarian, Arratian, ... saltzen dute landutakoa. Nekazari herrietako berri bestean, txisperu-armaginen, forjarien edo marinel-arrain saltzaileen berri ere emango digute ziri bertsoetan. Garai haietako komertzio bidean ezagunak ditugu.

Euskal lanen berri eman aurretik ha-hor beste zenbait datu biografiko. Antonio eta Juan Kruz, anaia biok ezkondu bage hil ziren. Aita Santik dioenez, Juan Kruz bertsolaria edo letra egilea izateaz gainera goizero-goizero hamaika t'erdietatik hamabietara txistua jotzen ei zuen Santanaruntz goazela Barrenkaleko seigarren etxeko balkoitik eta Antonio ostera doinu sortzaile genuen. Euron heriotz-agirietan hola dio:

<b>Sacramento:</b>	DEFUNCIONES-Registros originales
<b>Fecha:</b>	1831-02-15
<b>Nombre y Apellidos:</b>	Juan Cruz, Fuente, Bolangero

*en quince de febrero de mil ochocientos treinta y un años, a los setenta cumplidos de edad, habiendo recibido los Santos Sacramentos de Viatico y Extremaunción, falleció Don JUAN CRUZ DE LA FUENTE, natural de esta villa, soltero, hijo legítimo de Andrés de la Fuente, natural de la Ciudad de Burgos y de Francisca de Bolanxero, natural y vecinos de Vitoria. No testó. El siguiente día celebrados los oficios fúnebres en la Parroquia de Santa María conforme su clase, se enterró su cada-*

*ver en el Campo Santo de Magdalena y para que conste firmé: Licenciado Don Joseph Antonio de Bengoechea.*

*En tres de julio de mil ochocientos treinta y cuatro, habiendo recibido los Santos Sacramentos de Viatico y Extrema Unción, a los setenta y seis de edad, falleció Don Antonio de la Fuente, soltero, natural y vecino que fue de esta villa; hijo legítimo de Don Andrés de la Fuente, natural de la Ciudad de Burgos, y Doña Francisca de Bolangero, ya difuntos, natural y vecinos que fueron de la de Vitoria. Testó ante Don Jose Antonio de Areitio, Escribano Real y Numeral de la Merindad de Durango. El siguiente día, celebrados los oficios divinos de la clase real en la Parroquia de Santa María, se enterró su cuerpo en el Campo Santo de la Magdalena. Y para que conste firmé yo el nominado cura: Licenciado Don Joseph Antonio de Bengoechea.*

<b>Sacramento:</b>	DEFUNCIONES-Registros originales
<b>Fecha:</b>	1834-07-04
<b>Nombre y Apellidos:</b>	Antonio, Fuente, Bolangero

Txistua, bertsoak, musikak, dantzak baino gehitxoago egin zuten anaioak. Hilterakoan ondasun hau laga zien ondorengoei: *Barrenkaleko 6, Artekalean 12-14a, Kalebarriko 46a, Kanpantorre-ostetan edo Matxino-estartako soloa eta Ijorretako Murueta baserria, (gaur Landako)*

Kronikak esan izan dugu eta halantxik da. Ziderginok utzitako arrastoan Aita Villasantek, Euskaltzainburu ohiak, 1961ean *ScriptoriumVictoriense, Escuela Superior de Teologia, Seminario Diocesano de Vitoria* aldizkarian eta *Resumen de la Vida del P. Palacios y Rasgos de su fisonomía espeiritual* artikulua luzean bertso batzuk agertzen ditu. Villasanteren hitzetan Otxandioko forjariak kantatzen ei zituzten. Artikulu honek dukegu aurkitu genuen giltza. Bertso horiek nondik jaso dituen diosku. Villasantek Arrigorriagako seme Aita Jose Anto-

nio Uriarte 1812-1869, Bonaparte printzearen laguntzailea eta Jaurreriko Batzar Nagusietako Agirien euskeratzailea besteak beste, Uriarteren eskuizkribu batean aurkitu dituela diosku. Gaur egun Arantzazuko frantziskotarren komentuko artxiboan dago: ***Poesia Bascongada: Dialecto Vizcaino*** izenburupean Aita Jose Antonio Uriarteren liburu baliotsu hau eta bertan 178. orrialdean ***Durangoco cidarguiñen cantac***. Dokumentu honi esker gure Plateruon euskal bertsoak ezagutzen ditugu.

Antonio de Truebak, Bizkaiko Kronikalariak *Euskal Erria* Donostian ateratzen zen aldizkarian ziderginon lanen zerrenda erderaz ematen digu: ***Causino, de las moscas, Arcacusua, Duña, criada da sensañac, Viaje de Arratia, Mariñeros, Arre pocho, Asuntos caseros, de los chisperos, Monzona***(sic), ***Reloj de Dima, Aita Palacios, Gaboneco cantac***. Ondorengo aztertzaileek titulu be-beroiak ematen dituzte baina bertsoak ez dira ageri. Erdizkako egia. Truebaren lana baino lehenago Iruñeako *revista Euskaran* bost bertso sailek argia ikusi zuten 1880n: ***Arre-pocho, Euliyak, Diamaco*** (sic) ***fiestac, Aita Palaciyos, Zagarra***.

Lantxo honetara dakarzkigun bertsoak Aita Uriarteren koardernotik jasotako eran datoz: ***Las sirvientas, Arratia, Arrain saltzaillia, Necazarijenac, Mariñeruen bicitza, Eulijac, Pulga, Relox de Dima, Viva alegrija, Sagarra, Aita Palacios, Chisperos, Gaboneco cantac***. Gaurko gure sartaldeko euskeratik hurrurean edo berdin xamarrean ditugu. Ulerterrezak eta zirikatzaileak. Gerediaga Elkarateak publikatu zituen **1984an DURANGOKO PLATERUAK** izenburupean. Honatx horietariko batzuk:

## DURANGOCO CIDARGUIÑEN CANTAC

### Las sirvientas

#### Arratia

1.- Dueña, criada, sensañac  
cantatzera guaz  
Beti beti servietan  
nola gauden penaz.  
Eman eciñic gusturic  
dueñiak planchiaz  
oguijaz crijadiak  
sensañak semiaz  
Etribillo  
Au da penia, ay ene  
au da penia

3.-Sarri ascotan planchiaz  
dauka larrituric  
Aguinetaco minagaz  
ecin sufriduric  
Orregaitic biarrian  
biarrac eraguin  
esaten dabela sarri  
ez daquit cer eguin  
Au da penia ...

9.-Ostera izaten bada  
sein ori gueistua  
seinzañac bai pasauco dau  
purgatorijua  
ez lepuan, ez echera  
ez ibilli gura  
beriaz urtetiarren  
uletatic tira  
Au da penia ...

11.-Negartija bada seña  
bauca cereguñic  
ua ua esan eta  
ecin issilduric  
ozterantzian bere  
gabian gabian  
beguiric ichi baric  
oyaren ganian  
Au da penia ...

1.-Milla ta zazpireun  
ta larogueta amairu  
zer pasatu jaten aurten  
cantatu naicogu  
Inducira noiala ni  
fiesten atzian  
esaten nebala sarri  
Inuenganian.  
Ay ene, ay ene, ay ene, bada.

2.-Momocho tamboliñagaz  
atabalez Pepe  
nic zapatac calcerdiyac  
besapian bere;  
ecin eguin aldatza  
guero aldapia  
Induciyen  
eguiteco  
lelengo dantzia  
Ay ene, ...

4.-Chomiñen valencianagaz  
urten neban andic



juan nitzan Guibraltaño<sup>3</sup>  
casi busti baric  
andican Mañarira  
labandu ta jausi  
mallatu arren gorputza  
azurric ez aussu  
Ay ene, ...

5.-Mañarira jatzi nitzan  
sopia bezela  
altzi sicuric bagaric  
burutic oñera;  
tabernaco sucaldian  
berotu ecinic  
Chacoliñec erre arren  
egur carga onic  
Ay ene, ...

## **ASTODUNAC ARRAIN SALTZAILLIA**

1.-Ni naz emacume bat  
arrain saltzaillia  
mariñelac ichasotic  
dacarren gustia  
nai besigu, nai legatz  
atun, sardinia  
nai chirla, nai mielguia  
baita anguillia  
Estribillo:

---

<sup>3</sup>Indusi ta Mañari artean bada GIBELTAR deritzon baserrietxe bat, atzean-GIBELean hatxarri bat duena. Espainiako Peñon de Gibraltar ¿??? Kasualitatea?

Arre pocho, arre  
arre, asto arre,  
arre malhechoria  
arre bada arre;  
isso, is, isso, isso  
ortic cec arua  
beti baña oquerretic  
asto berenua

3.-Amarrac jo artian  
izotz andi baten  
oñac billosic nago  
arrañac garbitzen;  
sesto artian guero  
ondo plegatzia  
astuan carguetaco  
daucat nic penia.  
Arre pocho ...

4.-Arre pocho, arre arre  
arre bada astua  
arre asto mucar  
beti beticua  
isso is, isso isso  
isso isso bada  
au da asto plaguia  
isso asto berenua.  
Arre pocho ...

12.-Gabian venta gustia  
eguin esqueitio  
carguia arturic buruban  
daruat echeguiño  
sorquis bete beteric  
burutic guerrira  
gresalac erre estaidan

neure arpeguiya  
Arre pocho ...

**BASSERRICO CEREGUIÑAC**  
**NECAZARIJENAC**

1.-Urteilic abendura  
ifintera nua  
versuac necazalien  
alabanciñora  
alan merecitzzen dabe  
edocein lecutan  
eurac ez balitzatez  
cer dago munduan?

3.-Ceceilla bigarrena  
nabuac ecarteco  
solotican echera  
idijarentzaco  
loditu ditezan ondo  
emoten deutsez sarri  
erraldiac euquib dayan  
amazazpi ta erdi

8.-Garagarrilla zazpi  
garijac batzeco  
artua bigarrengez  
gutziz jorratzeco  
garijac ebaguiric  
bacoachac soluan  
metan ifinten dituez  
lau, bost, sei lekutan

11.-Urrija amargarrena  
baturic artuac  
guero abijetan dira  
ereiten linuac  
gaztañac jatzi artian  
arbola puntatic  
maquilla luce bategaz  
bat ichi bagaric

13.-Abenduba amabi  
artuac zuritzia  
mutil nescatillentzat  
ondo alegria  
endemas badagoz bertan  
Braulio ta Pepe  
olguetan pasetaco  
bihar eguin bague.

### **RELOX DE DIMA**

1.-Sin alabar la parte  
abijetan naz ni  
a componer seis versos  
erloju bateri  
no salgo por el reloj  
ifintzera nua  
sino que es la musica  
neure gustocua

3.-Cuando le miro digo  
neure buruari  
Jesus que al ver es gusto  
edocein lecutik  
diciendo de esta suerte

Ay ce penia dan  
bendita la mano  
ceñec eguin eban.

5.-Quien no oye sus secretos  
gusturic ez dauca  
y el que deja de verle  
lastima asco da  
pues si así en el mundo  
gauza obagorik  
sin ofenderle a nadie  
musicas beteric.

6.-Yo no tengo que decir  
seigarren versuan  
estoy en el que le acabo  
biar dan moduban  
el que creer no lo quiera  
diñodan guztijan  
esta el reloj en Dima  
jauregui barrijan

### **GABONETACO CANTAC**

1.-Ardi zain devoto bi  
amodio andijas  
Jesusengana duas  
janari gustijas  
batac darua esnia  
bestiac estija  
aurra consolatzeco  
biardan guztija.

2.-Artuic pichar bete ardo  
da guacen arin echera  
**gabon gaba celebratzeco  
aitaren da amaren onduan.**

**Icusi oc aita barreca  
ama bere chit contentus**  
baita neuc bere celango  
traguac lenengo esanda Jesus  
visigu errien assurac  
ondo chupauco degus

3.-**Eraguijoc mutil  
eraguijoc mutil**  
sirrin sarran  
sirrin sarran  
**aurreco tamboliñori  
gastañac eguin artian  
gastañac eguin artian  
sipli sapla  
sipli sapla**  
plis plast  
plis plast pum  
**gabon gaba celebratu dezagun.**

# Gaboneco kantac

CANCIONES DE NAVIDAD.

Nº 3.

por los celebres Plateros de Durango.

Zortzico.

Nº 1.

CANTO.

PIANO.

Ar.

- di - zainde - vo - to bi a - mo - di - jhoandi - jhas Je -

*p*

Dolésio, Editor: Bilbao.

1926.

su - se ga - na du - as jha na - ri gus - ti - jhas Ar -

jhas ba - tac da - ru - aes - ni a

bes - ti - ac es - ti - jha au - rra con - so - la -

tze - co bi - ar - danguz - ti - jha ba - jha. D.C.

*poco rit.* *1!* *2!*

*col canto.*

Defesio, Editor. Bilbao. 10258.



Nº 2.

Allº no mucho.

CANTO.

PIANO.

*f* Ar-tuicmu,til pi-char be - teardo da guacen a - rin  
e - che-ra Ga - bon ga - ba ce - le - bra - tze - co  
Ai - ta - ren da Ama - ren on - du - an *f* i - cu - si - oc  
Ai - ta ba - rre - ca *f* A - ma - be - re - chit *pp* con - ten - tus

Detésio, Editor, Bilbao. 10268.

120

*f* i - cu - si - oc *pp* Ai - ta ba - rre - ca *f* A - ma be - re - chit  
*f* *pp* *f* *pp*  
*pp* con - ten - tus *mf* bai - ta neuc be - re ce - lan - go tra - gu - ac  
*mf* *f*  
le - nen - go e - san da Je - sús. *f* Vi - si -  
*f*  
gu e - rri - eu as - su - rrac on - do chu - pan co de - gus. ( )  
(*minia.*)

Doféio, Editor, Bilbao. 10268.

Nº 3.

**CANTO.** *All: vivo.*

*ff* E - ra - gui - jhoc mu - til e - ra - gui - jhoc

**PIANO.** *Al staccato.*

*cres* - *cen* -

mu - til si - rrin sar - ran si - rrin sar - ran

*cres* - *cen*

*- do.*

au - rre - co tam - bo - li - ño - ri

*- do.*

Notésio, Editor. Bilbao.

10268.

*f* gas - ta - ñac e - guin ar - ti - ac gas - ta - ñac e -  
 guin ar - ti - an si - pli sa - pla si - pli sa - pla  
*gritando,* plast, plast, plast, pla-t, Pum *perdentosis*  
*ed canto,*  
*Vivacissimo,* ga - hon ga - ba ce - le - bra - tu de - sa - gun  
 Balsio, Editor; Bill, s. 10268.

Memoriaz, tradizioaz, historiaz, betidaniko betikoaren lainotegi lausoan arakatze lanean hasi dugu amaitzera doan ibilbidetxo hau. *Agur Zuberora Etxahun Irurikoari* zor diogu, *Egun da Santi Mamiña Gabriel Arestik* erditu zuen eta...

**Hator, hator mutil etxera?** Don Resu Maria Azkuek egundoko lanak burutu zituen Morfologia, Hiztegia, Kantutegia, Euskaltzaindia, Euskal Jakintza bilduma,... Garbizalea ere badugu Azkue. Batzuetan berak aitortzen digu urliak emandako informazioa edo kantua edo... euskeraz dotoreago legokela beste honetara, berak zuzenduz. Azkuek zein abesti jaso zuen Otxandio aldean? Aita Uriarteren koadernoak ez zuen aztertu? Ez benetan? Bartolome Ertzilla, (1863-1898) bere garaikide eta modan zegoen durangar konpositorearen **Mesias sarritan agindu zana** eta bere obra Bilbon ez ezaguna ote zitzaion gure lekeitiarrari? **Gaboneko kantac – Canciones de Navidad por los celebres Plateros de Durango,...** Dotésio editor de música, Bilbao, Doña María Muñozen dago. Azkue Bilbon bizi da, Euskera katedra,... Ertzilla 1898an zendu da... nebulosa lausoan jarraitu beharko dugu tradizioz ikasi dugun **Hator, hator mutil etxera** hunkigarri eta betierekoa abestuz.

Aldiz, argitu dezadan gure egunotan Gabon iluntabarrean, 2014-012-24ean oraindik bai behintzat, Otxandion kalean, eta etxeko afarira aurretik, urtero hirugarren bertsio bat kantatzen dutela. Bataren zati batzuk baditu eta bestearen adabakiekin horniturik dago. La Fuente anaiek euron ibileretan Otxandion batu zuten melodia-letra hori? Baliteke! *Boga-boga* nork idatzi zuen ez daki(gun)dan bezela gure Zidergin-Plateruon abestia anonimatura, historia-aurrera igan da eta.... Geurea da! Jarrai dezagun kantuan!!!

*Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloak  
Ijorretan, 2015-eko Andre Mari irailekoz*